


# ERALDATU



## ELKAR BIZITZEKO

Unitate didaktikoa



DBH eta  
jende heldua

Adin gomendatua

12 urtetik aurrera

Iraupena

- 40-50 minutuko saioa bat
- 25 minutuko saio erdi bat (behar izanez gero)

Helburuak

- 1 Hezkuntzarako eskubidea lantzea, gorroto-diskurtsoak arintzeko eta gatazkak moldatzeko gakoa baita.
- 2 Gorroto-diskurtsoetan diren errealitate batzuk ezagutzea, begirada global baten pean.
- 3 Kontzientzia kritikoak sortzea.
- 4 Sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduera egitea.
- 5 Bakoitzaren eta taldearen ardura sustatzea.

Lantzen diren funtsezko gaitasunak

Haur Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta haien antolamendua ezartzen dituen otsailaren 1eko 95/2022 Errege Dekretuan jasotakoak:

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko gaitasuna.
- Herritar gaitasuna.
- Ekintzailtzarako gaitasuna.
- Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako gaitasuna

Testuingurua eta justifikazioa

Aurten, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren (CME) eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren Astearen (SAME) bidez, hezkuntza formalean eta ez-formalean j arri nahi dugu arreta, **gorroto-diskurtsoak zerk eragiten dituen eta zer ondorio izan ditzaketen jakiteko**; era berean, indarkeriazko pentsamendu eta narrazioak deseraikitze, eta pentsamendu nahiz narrazio

prosozialak eta eraldatzaileak eraikitzeko; eta, azkenik, aniztasunean elkar bizitzeko behar diren trebetasunak garatzeko. Testuinguru horretan, **Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea (ETCG)** gakoa da gorroto eragiten duten diskurtsoei aurre egiteko eta Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) hauek lortzea ahalbidetuko dituen gizarte baketsu, bidezko eta inklusiboetarantz aurrera jotzeko:

**4. GJH** Guztiontzako **kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa** bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

**10. GJH** Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko **desberdintasunak murriztea**.

**16. GJH** Gizarte **bidezko, baketsu eta inklusiboak sustatzea**.

Ikastetxeak, hezkuntza formala eta ez-formala funtsezko guneak dira gorroto-diskurtsoak eta gatazkak prebenitu, arindu eta ezabatzeko. Gune horietan, izan ere, irakasleek eta monitorea funtsezko eginkizuna betetzen dute gizarte inklusiboak sustatzeko. Hasi baino lehen, garrantzitsua da gorroto-diskurtsoa zer den hobeki jakitea eta esan behar da gaur egun ez dagoela haren inguruko definizio adosturik.

**Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren** bidez, gorroto-diskurtsoari buruzko definizio honekin egiten dugu bat: arrazakeriazko gorrotoa (kulturala, erlijiosoa eta/edo jatorriari buruzkoa), aporofobia eta matxismoa zabaldu, eragin eta justifikatzen duen adierazpen oro da, edota desgaitasunaren, osasun mentalaren eta sexu- nahiz genero-dibertsitatearen kontrakoa; edota intolerantziak eragindako beste gorroto modu batzuk izan daitezke, demokrazia, gizarte egonkortasuna, bakea eta kultur kohesioa/dibertsitatea eta aniztasuna higatzen dutena (Komunikazio Komunitario, Alternatibo eta Parte-hartzailearen arloko Ikerketa Sarearen eta Nazio Batuen definizioan oinarritua).

Gure iritziz, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea gakoa da -tolerantziaren bidez eta desberdintasunak eta aniztasunak onartuz- gizarte inklusiboak sustatzeko eta eraikitzeko, aberasgarriak zaizkigulako eta, horri esker, gure gizarteak demokratikoagoak direlako eta pertsona guztientzako eskubide gehiago bermatzen dituztelako.

Espero dugu, lan honen ondorioz, gorroto-diskurtsoekiko jarreretan dauden ezberdintasunak



**EZBERDINTASUNAK  
ETA ANIZTASUNAK  
ABERASGARRIAK  
ZAIZKIGU**

eta desadostasunak murriztea eta gune seguruak, bakezaleak eta inklusiboak sustatzea. Ikasleekin lantzen joango zaren material guztietan behar diren tresnak topatuko dituzu gorroto hori eta haren inpaktuak atzeman, prebenitu eta konpontzeko, bai eta huraxe eragiten duten zergatiari buruzko argibidea ere. Hori guztia era dinamikoan garatua, hezkuntza-ziklora eta denboretara egokituta. Funtsezkoa iruditzen zaigu hezkuntzaren gune formaletatik eta ez-formaletatik bultzatutako gogoeta, haurrek gaiaz duten hausnarketa, sentimendua eta iritzia jakiteko aukera ematen baitugu. Proposamen hau ezagutzera animatzen zaituztegu. Eragingarria izango zaizuelakoan gaude. Baditu dinamikak, jolasak, jarduerak eta zuen moldera egokituko dituzuen baliabideak, beti egin ohi duzuen bezala.

**Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren bidez, gorroto-diskurtsoak eraldatuko dituen hezkuntzaren alde egiten dugu, banakoei nahiz giza taldeei kalte handi-handia eragiten dieten diskurtsoak baitira; horretarako, begirada kritiko eta globala darabilgu, gorroto-diskurtsoak zerk eragiten dituen topatzeko eta zer ondorio dituzten erakusteko.** Diskurtso horiek haustea jarraitu beharreko bidea iruditzen zaigu mundu bidezkoago, gizatiarrago eta jasangarriago eraikitzeko. Ematen dugun pauso bakoitza lagungarri zaigu huraxe lortzeko bidean.



**HASI BAINO LEHEN**

esan nahi dizugu hezkuntza-etapa honetarako bi jarduera-aukera sortu ditugula, gehien gustatzen zaizun eta/edo gehien egokitzen den hura aukeratu dezazun, haien garapenaren, helburuaren eta denboren arabera.

**1. aukera: Hitzen boterea, eta 2. aukera: AnTzerki eraldatzailea. Goza itzazu!**



**Iraupena:** 40-50 minutuko saio bat (irakasleek eta monitroek beren ikastetxeko edo lantokiko saioen iraupenera egokituko dute).

**Materialak:** Folio zuriak; antifazak; *photocall*.

## Saioaren garapena

Honako material hau hartu dugu oinarri: <https://www.youtube.com/watch?v=uUEvKbk5-4E>



Ikasleak bi taldetan banatuko ditugu ausaz eta era mistoan. Ahalik eta orekatuen egon behar dute.

Taldeetako bat arbelera ateratzen da, eta beste taldea begira geldituko da eserita.

Arbelera atera den taldeko kide bakoitzari eskatuko zaio idatz dezala **egunero pairatu edo entzun dituen irainak**. Edozein testuingurutan entzundakoak: ikastetxean, ikasgelan, aisia jardueretan, kirola egitean, kalean, sare sozialetan, albisteetan, telesail eta telebista saioetan, etab.

Behin irain guztiak arbelean idatzitakoan, ikasleak eseri, eta beste taldea aterako da, baina oraingo

honetan haiek berek bizi izandako edo egunero ikusten dituzten gorroto-egoerak idatzi behar dituzte.

➤ **Nola antzeman eta konpondu aurreko paragrafoan aipatu ditugun irainak, gorroto-diskurtsoak edo gatazkak?**

Ondoren, eskura duzun material lagungarria eta erreferentziazkoa aipatuko dizugu. Izan ere, irakaslea edo ikaslea zaren aldetik, hura erabil dezakezu gatazkak eta gorroto-diskurtsoak aurkitzen eta antzematen laguntzeko.

Batetik, detectómetro dago (1. eranskina) eta, bestetik, resolveitor (3. eranskina). Aipatu

eranskinetan bertsio inprimagarria duzu ageriko leku irisgarri batean jartzeko.

Garrantzitsua da zu ere ahalegintzea horrelakoak antzematen, bazterkeriazko eta abusuzko egintzak baitira, desberdintasunei egiten diete eraso, giza eskubideak urratzen dituzte eta duintasunaren mugak hausten dituzte, aurreiritziak eta egoera batzuen gaineko ezjakintasuna abiaburu harturik, aurreiritzi horiek berak elikatzen dituen kiribilean. Beraz, horiek oro antzematea, haien kontra egiteko modu bat da.

Dinamika honetan sortzen diren emozioak eta sentsazioak sakonago lan egiteko, irakasleek horrelako irainak edo egoerak pairatu dituzten

ikasleei eskatuko diete eskua altxatzeko eta honako galderari erantzuteko:

- Zer sentitzen duzue irainak entzutean?
- Zergatik erabiltzen dira zuen inguru hurbilean?
- Normalizatuta al daude zuen lagunaren artean?
- Zer egin genezake gutxiago edo batere ez erabiltzeko?

**Gorrito-egoerak eta gatazkak geldiarazteko unea da.** Guk ere saiatu behar dugu, munduan eta pertsonengan aldaketak eginez. Horretarako, **Super T** dugu eta honakoa azaldu digu:

## KAIKO! SUPER T NAIZ



Oso pertsonaia berezia naiz, super-botereak baititut eta, horri esker, gorrito-diskurtsoak eta gatazkak atzeman eta konpontzen ditut.

Nire izeneko **T** hori baliagarria da egoera globalak aldatzeko; eta horrela, mundu bidezkoago eta jasangarriagoa lortzeko jende guztiarentzat, toki guztietan.

Lagunduko al didazue gatazkak eta bidegabekeriak konpontzen eta mundua eraldatzen?



**Antifaz** hau emango dizuet eta hori guztia lortzeko botereak izango dituzue! Super-botere horiek bizitza osoan izango dituzue bidelagun. Ez ahaztu eta erabil itzazue!

Antifaz bat emango diogu pertsona bakoitzari eta huraxe jartzera animatuko dugu, joko handiago emateko eta sinesgarriago egiteko. Baten batek ez badu jarri nahi, ez dezala jarri, bere eskubidea da.

**Esan ezazue antifaza gorroto-diskurtsoak eta gatatzak prebenitu eta eraldatzen dituen tresna dela.** 2. Eranskinean duzu eskura inprimatzeko eta ikasleen artean banatzeko.


Orain, saioaren bigarren zatira pasatzeko unea da. Biribilean eserita (aulkietan edo lurrean), parte-hartzaile bakoitzak bere izena idatziko du folio zuri baten goialdean; gero, eskuinean duten pertsonari emango diote. Ikaskidearen papera jaso duen pertsonak burura etortzen zaion hitz edo esaldi polit eta positibo bat idatzi beharko du folioaren behealdean (berehala ulertuko duzu zergatik), esku artean duen folioaren jabea den ikaskidearengan pentsatzen duenean.

Behin hori eginda, folioa modu berezi batez tolestuko dugu esaldia ezkutatua gelditzeko (horregatik, behealdetik hasi beharra dago), folioan idatzi behar duen hurrengo pertsonak deus ikus ez dezan, ezerk ere baldintzatu ez diezaion eta nahi duena idazteko libre sentitu dadin; bestela, ikusten

badugu guk idatzi nahi genuena jadanik idatzita dagoela, ez dugu huraxe errepikatuko. Zirkuluan zenbat pertsona dauden, beste horrenbestetan errepikatuko da hori, pertsona guztiek hitz/esaldi politik edo maitasunezkoak idaztea lortzeko, halako mezu positibo bat emanda, hots, inklusioaren eta onarpenaren aldeko mezua. Behin txanda bukatutakoan, pertsona bakoitzak bere izena duen papera izanen du esku artean eta beretako ahapeka irakurriko du, edo bestela, nahi baldin badu, ozenki irakurriko du besteek entzun dezaten.

Behin saioa bukatutik, joan ikasleekin Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren Astea zure ikastetxean koordinatzen duen irakasleei aurrez eman diegun *photocall*-era eta Super T bihurtuko zara. Ondotik, aski duzu hau egitea:

- Antifaza jantziko duzu
- Aurpegia *photocall*ak duen zuloan kokatuko duzu
- Eta zain egongo zara flashak piztu arte

 **Iradokizuna:** Argazkiak sare sozialetan partekatu ditzakezu **#zureboTereak** traolaren bidez eta etiketatzen ahal gaituzu, egiten ari garen lana ezagutu dadin eta irudiak ikus daitezzen.

## SUPER T

**Behar dugun guztia daukagu mundua aldatzeko eta mundu bidezkoagoa, berdintasunezkoa eta baketsua egiteko, munduko pertsona guztiak errespetuz eta zoriontsu bizi daitezzen. Orain, zu ahalduntzea eta zure esku dagoen guztia egitea bakarrik gelditzen da mundu hori lortzeko. Nola egin dezakezu? Ez ahaztu zure super-antifazak behar diren botereez hornitzen zaituela gatatzak eta gorroto-diskurtsoak amaitzeko.**

### ESKERRIK ASKO POSIBLE EGITEAGATIK!

**“Bidaiarik luzeena urrats txiki batekin hasten da”  
(Txinako esaera zaharra)**

# SAIOA

## 2. AUKERA

# ANTZERKI

## ERALDATZAILEA

**Iraupena:** 40-50 minutuko saio bat (irakasleek beren ikastetxeko edo lantokiko saioen iraupena hartuko dute oinarri saioa egokitzeko).

25 minutuko saio erdi bat.

**Materialak:** Antifazak; bunbuilo zuriak; *photocall*.

### Saioaren garapena


Dinamika hau lantzen hasteko, irakasleek lehenik ikasleak hainbat taldetan banatuko dituzte. Kontuan hartuko dugu guztira zenbat ikasle diren, baina onena da taldeak 7-8 lagunez osatuta egotea, ahal bada. Behin taldeak egindakoan, irakasleek eta monitoreek **Zapalduaren antzerkia** dinamika bere testuinguruan kokatuko dute. Jardueraren xedea da parte-hartzaileek lantzea eta hausnartzea **nor den zapaltzailea eta nor zapaldua**, istorioak esploratuz eta antzetzuz. Publikoa ere badago eta antzetzlanean parte hartuko du.

Behin hori azaldutakoan, eskatuko zaie talde bakoitzean gatazka-egoera bat edo gorroto-diskurtsoak pentsatu, adostu eta aukeratu ditzatela, hau da, haiek ikasgelan, ikastetxean, edo esparru horietatik kanpo ikusi edo bizi izandakoak, edota baten batek kontatutakoak.

Behin egoera edota diskurtsoa aukeratutakoan, irakasleari edo monitoreari jakinaraziko diote, egokia ote den eta emandako jarraibideak betetzen ote dituen ikusteko.

Ondoren, hona hemen gerta daitezkeen egoerak, ikasgelan bertan halakorik batere sortzen ez bada:

- Gazte talde batek pertsona baten lepotik egiten du barre haren azentuagatik.



- Gazte talde batek pertsona bat kritikatzeko du haren sexu-joeragatik.
- Gazte talde batek pertsona bati egiten dio iseka haren genero-identitateagatik.
- Gazte talde batek pertsona bat baztertzen du haren janzkeragatik (adibidez: beloa darama, beste kultura batzuetako arropa janzten du, ez darama modan dagoen arroparik...)
- Gazte talde batek pertsona baten lepotik egiten du barre haren itxura fisikoagatik.
- Gazte talde batek pertsona bat kritikatu du, diskriminazioa jasaten duten arraza-ezaugarriak izateagatik.
- Gazte talde batek pertsona bat baztertzen du haren izaeragatik.

➤ **Egoera hori antzetzeko unea da. Talde bakoitzak 5 bat minutuz egingo du.**

Jarduera egin bitartean, publikoak erne-erne egon beharko du, publikoak egoerak antzemango baititu; eta gero, eszena horietarako ekarpenak egin eta aldaketak proposatuko ditu, egoerak eraldatzeko eta gorroto-eduki oro ezabatzeko: dela arbuioa, dela ezberdintasunak ez onartzea, dela bizikidetzarik eza.

**Antzezlana ikusi duen publikoak** gogoeta hori egin, ondorioak atera eta irtenbideak proposatu ditu. Hau da, **artista taldeak** antzezlana emango du eta ez du beste ezer egingo (1. Bertsioa gorroto-mezuarekin. 2. Bertsioa, berriz, gorrotorik gabe).

Ondoren, euskarri/erreferentziatzko materiala utziko dugu irakaslearen edo ikaslearen eskura. Beraz, lagungarria izango zaizu antzezpenean gorroto-gatazkak edo gorroto-diskurtsoak aurkitzeko edo antzemateko. Garrantzitsua da zu ere ahalegintzea horrelakoak antzematzen, bazterkeriazko eta abusuzko egintzak baitira, desberdintasunei egiten diete eraso, giza eskubideak urratzen dituzte eta duintasunaren

mugak hausten dituzte, aurreiritziak eta egoera batzuen gaineko ezjakintasuna abiaburu harturik, aurreiritzi horiek berak elikatzen dituen kiribilean. Beraz, horiek oro antzematea, haien kontra egiteko modu bat da. 1. eranskinean, arestian aipatu dizugun detectómetro izeneko laguntza-materiala topatuko duzu. Inprimatu eta agerian jar dezakezu, behar duzun bakoitzean erabiltzeko.

Talde bakoitzaren antzezpenean ageri diren gorroto-elementuak antzeman eta partekatu ondoren... Pertsonaiaren bat agertuko da proiektatua ikasgelako arbelean edo paretan gauza oso garrantzitsu eta beharrezko bat esateko, gatazka konpontzeko bidean aurrera egite aldera. **Super T da!** (Super T-ren irudi hau proiektatuko da).

## KAIKO! SUPER T NAIZ



Oso pertsonaia berezia naiz, super-botereak baititut eta, horri esker, gorroto-diskurtsoak eta gatazkak atzeman eta konpontzen ditut.

Nire izeneko **T** hori baliagarria da egoera globalak aldatzeko; eta horrela, mundu bidezkoago eta jasangarriagoa lortzeko jende guztiarentzat, toki guztietan.

Lagunduko al didazue gatazkak eta bidegabekeriak konpontzen eta mundua eraldatzen?



**Antifaz** hau emango dizuet eta hori guztia lortzeko botereak izango dituzue! Super-botere horiek bizitza osoan izango dituzue bidelagun. Ez ahaztu eta erabil itzazue!

Animatu ikasleak antifaza jantzera (2. Eranskina) joko handiagoa emateko eta sinesgarriago egiteko. Baten batek ez badu jarri nahi, ez dezala jarri, bere eskubidea da. **Esan ezazue antifaza gorroto-diskurtsoak eta gatazkak prebenitu eta eraldatzen dituen tresna dela.** 2. Eranskinetan dute eskura inprimatzeko.

Irakasleak antifaz bat emango dio parte-hartzaile bakoitzari; jantziko dugu, eta irakasleak berak gogoeta eragiteko galdera hauek egingo ditu ikasgelan lantzeko (hona hemen ideia batzuk; gehiago bururatzen bazaizkizu, erantsi dudarik gabe):

- Zer gertatzen ari da antzezpenean?
- Zerk eraginda gertatzen ari da hori?
- Nola eragotzi genezake egoera hori? Eta nola konpondu?
- Zer egingo zenuke/nola jokatu zenuke, egoera hori ikusiko bazenu?
- Biktima bazina, nola sentituko zinateke? Nola jokatu zenuke? Nola konponduko zenuke?
- Egoera hori hainbat aldiz gertatzen bada: zer-nolako eragina izan dezake mezuak? Nola eragiten dio biktimari? Eta egoeraren lekukoa denari?
- Zer premia sortzen dira?

Publikoak, hau da, ikasle ikusleek, hainbat erantzun emango dituzte egoera eraldatzeko, bai irtenbideak, bai alternatibak, bai aldaketak. Beraz, eszena berriro anteztuko da, baina ikasleen ekarpenak aplikatuta, eszena hobetzeko eta gatazkarik gabe eta

gorroto-diskurtsorik gabe emateko. Halaxe jokatu da talde bakoitzarekin.


Ez izan presarik. Beste saio erdi bat duzu jarduera hau talde bakoitzarekin lasai egiteko. Garrantzitsua da behar den denbora erabiltzea gatazka horren konponbidea lantzeko eta horren gainean gogoeta egiteko. Dinamikaren gakoa da ikustea zer ikasbide lortzen diren hartatik gure eguneroko bizitzan aplikatu ahal izateko. Antzezpen bakoitza bukatzean, irakasleak, nahi izanez gero, resolveitor-en ageri diren ekarpenak osatuko ditu (3. eranskina). Behin hori partekatu eta adostu ondoren, azken gogoeta bat egingo dugu denon artean dinamikari buruz eta hartatik jasotzen denari buruz, gorroto-diskurtsoei eta desberdintasunak onartzeari dagokienez.

Talde bakoitzak hiru hitz aukeratuko ditu ikasitakoa eta dinamikatik atera den gakoa laburbiltzeko. Hitz horiek komiki-bunbuiloetan idatziko dira (4. eranskina). Gomendagarria da bunbuiloak eskura izatea, aurrerago ekitaldi nagusira eramanez eta partekatu ahal izateko.

Behin saioa bukatuta, joan ikasleekin Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren Astea zure ikastetxean koordinatzen duen irakasleei aurrez eman diegun *photocall*-era eta **Super T** bihurtuko zara. Ondotik, aski duzu hau egitea:

- Antifaza jantziko duzu
- Aurpegia *photocall*ak duen zuloan kokatuko duzu
- Eta zain egongo zara flashak piztu arte

➡ **Iradokizuna:** Argazkiak sare sozialetan partekatu ditzakezu **#zurebotereak** traolaren bidez eta etiketatzen ahal gaituzu, egiten ari garen lana ezagutu dadin eta irudiak ikus daitezzen.





## **SUPER T**

**Behar dugun guztia daukagu mundua aldatzeko eta mundu bidezkoagoa, berdintasunezkoa eta baketsua egiteko, munduko pertsona guztiak errespetuz eta zoriontsu bizi daitezen. Orain, zu ahalduntzea eta zure esku dagoen guztia egitea bakarrik gelditzen da mundu hori lortzeko. Nola egin dezakezu? Ez ahaztu zure super-antifazak behar diren botereez hornitzen zaituela gatazkak eta gorroto-diskurtsoak amaitzeko.**

### **ESKERRIK ASKO POSIBLE EGITEAGATIK!**

**“Bidaiarik luzeena urrats txiki batekin hasten da”  
(Txinako esaera zaharra)**

# 1. ERANSKINA



inprimatzeko

## Detectómetro



**Nola jakin eta atzeman gorroto- edo gatazka-diskurtsoa?**

- ✓ Ez dio baliorik ematen pertsona edo gizarte talde bati
- ✓ Pertsona edo gizarte taldea objektu gisa tratatzen du
- ✓ Ez du errespetatzen pertsona edo gizarte taldea
- ✓ Irainak, kontzeptu negatiboak eta/edo gutxiespenak dauzka
- ✓ Iritzi negatiboa du
- ✓ Pertsonari edo taldeari min egitea edo gaizki sentiaraztea du xede
- ✓ Errepikakorra da.
- ✓ Mespretxua eta diskriminazioa sustatzen ditu
- ✓ Eragin negatiboa du
- ✓ Indarkeria sortzen du
- ✓ Txantxak eta indarkeria justifikatzen ditu
- ✓ Zurrumuruetan edo gezurretan oinarritzen da
- ✓ Metaforen eta/edo ironien bidez eraikitzen da
- ✓ Segregazioa eta/edo polarizazioa bultzatzen du
- ✓ Ez da ebidentzietan oinarritzen
- ✓ Pertsona edo gizarte talde baten aurkako arbuioa sustatzen du
- ✓ Erraz biralizatzen da sare sozialetan
- ✓ ...


\*Erantsi egokitutako jo eta behar dituzun esaldi guztiak eta sortu zeure **detéctometro-a**.

# 2. ERANSKIINA

Antifaza



mozteko



# 3. ERANSKINA



inprimatzeko

## Resolveitor



**Gorrotoaren/gatazkaren aurka ekiteko eta haiek konpontzeko pistak:**

- ✓ Elkarrizketa erabiltzea
- ✓ Bizikidetzaren onak sustatzea
- ✓ Informazio orori balioa ematea
- ✓ Konfiantzazko norbaiti laguntza eskatzea edo arazoa jakinaraztea
- ✓ Zure ikastetxeko edo komunitateko erakundeetako protokolora jotzea
- ✓ Elkarrizketarako gune seguru eta intimoak sortzea
- ✓ Gaia gelan lantzea
- ✓ Huraxe sufritzen duen pertsonari edo taldeari ahotsa ematea.
- ✓ Huraxe sortzen duen pertsonari edo taldeari ahotsa ematea.
- ✓ Errealitatea ez ezkutzea
- ✓ Irakasleei gorroto-diskurtsoei buruzko prestakuntza ematea
- ✓ Ongia egiten duenaren erakargarritasuna azpimarratzea
- ✓ Ingurunera eta benetako arazoetara egokitzen diren egoerak lantzea
- ✓ Errespetuzko kultura ehuntzea
- ✓ Enpatiaz lan egitea. Galdetu nola sentitzen diren edo nola sentituko liratekeen antzeko egoera batean
- ✓ Kanpaina bat sortzea edo harekin bat egitea eta gorroto-diskurtsoen aurka mobilizatzea
- ✓ Politikoki ordezkatzeko zaituenari eskatzea legeak egin ditzala gorroto-diskurtsoen aurka
- ✓ Sarean gorroto-diskurtsorik ez zabaltzea
- ✓ Gorroto-diskurtso baten aurrean, kontrastatu eta informatu zaitez
- ✓ Zerbaitek deseroso sentiarazten zaituenean, errespetuz adierazi
- ✓...

\*Gehitu zure ustez behar dituzun esaldi guztiak, eta sortu zeure **resolveitor-a**.

# 4. ERANSKINA



inprimatzeko  
eta mozteko

Bunbuiloak



# 5. ERANSKINA

## Baimena

**GOGORATU:** zuen ikastetxeko ikasleak agertzen diren irudiak, bideoak edo bestelako materialak argitaratu eta partekatzeko, ezinbestekoa da gurasoen/tutoreen edo legezko ordezkarien **baimen egokiak** izatea, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak irudiak bere sare sozialen bidez eta kanpainari lotutako erakundeen kanalen bidez zabalduko direla jakin ahala.

Zuen ahotsak Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren sare sozialetako kontuetatik (Facebook, Instagram, Twitter, Flickr, webgunea edo hedabideak) zabaldu eta altxatze aldera, helburu nagusia dela SAME zabaltzea eta 4. GJH betetzearen aldeko borroka egitea, honako hauetara animatzen zaituztegu:

**Materialak eta argazkiak partekatzera zuen ikastetxeen eta hezkuntza-guneen webgunean eta/edo sare sozialetan**, Espainiako CME etiketatuz (behean, CMEren kontuen zerrenda). Horrela, Espainiako CMEn zabalkunde handiagoa eman ahal izango digu, eta, horrela, herritar gehiagorengana iritsi.


**Espainiako CMekin ere partekatu dezakezue** materiala **comunicacion@cme-espana.org** helbidera bidaliz. Postan oinarritzko informazioa sartzeko eskatzen dizuegu:

- Ikastetxearen/hezkuntza-gunearen izena:
- Parte-hartzaileak (Ikasmaila/Ikastaldea/Ikaskgela):
- Data eta lekua (herria, udalerrria, autonomia erkidegoa):

**Garrantzitsua**, mesedez, sartu honako paragrafo hau:

“[ENTITATEA]-k, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren baitan egindako jardueretan parte hartzen duenez, irudiak tratatzeko baimena ematen du, eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina (CME) osatzen duten erakundeei ematen dizkie irudiak ustiatzeko eskubideak, posta honen bidez partekatzeko. Tratamenduaren helburua CME ezagutaraztea edo sustatzea da, bai eta parte-hartzaileen irudia, ahotsa eta materialak zabaltzea ere, CME osatzen duten erakundeen edozein komunikabide edo komunikazio-kanalen bidez. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo bestelako eskubideak erabiltze aldera, jo [dataprotection@educo.org](mailto:dataprotection@educo.org) helbide elektronikora, eta pribatutasun-politika kontsultatzeko, jo hona: <https://cme-espana.org/politica-de-privacidad/>. [ENTITATEA]-k bermatzen du badituela haurren eta nerabeen guraso/tutoreek eman beharreko baimenak haien datu pertsonalak eta irudiak tratatzeko eta CMEko kide diren erakundeei lagatzeko”.

Irakurri dut eta onartzen dut. Sinadura eta zigilua: .....



[www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org)

**HEZKUNTZAREN**  
Aldeko Mundu-kanpainia